

FUNTSEZKO ALIANTZAK

Gure negozio-eredua funtzionatzen laguntzen duten hornitzaile eta bazkideen sarea deskribatuko dugu. Gure gaitasunak osatuko dituzten eta gure balio-proposamena sustatuko duten aliantzak; horrenbestez, kontsumitutako baliabideak optimizatuko dira eta zalantzak murriztuko dira.

Hornitzaileak enpresa edo pertsona fisiko bat dira, enpresa ezberdinen eguneroko jarduerarako behar dituzten beharrak asetzea da haien helburua; adibidez enpresak behar duen materiala, lehengaiak, osagaiak eta abar lortzea.

Kotxe elektrikoetan adituak (Tesla kotxe elektriko enpresa), egitura estrukturaletan adituak eta kotxe elektrikoak saltzen dituzten enpresak (dirua lortzeko).

BMW enpresak egingo digu diru laguntzak eta autoak kargatu ahal izateko, kargadoreentzat diseinua eta kokalekuak jartzeko posizioa adostuko dugu. BMW enpresaz gain, Volkswagen enpresari laguntza eskatuko diogu, enpresa horrek ere auto elektrikoak egiten dituelako.

Gainera, Iberdrola elektrizitate konpainiak, gure hornitzaile ofiziala izango da, kargadore postuak elektrizitatez betetzen gau eta egunez. Izan ere, gaur egungo elektrizitate konpainia fidagarrienetako bat da.

1. Zein dira gure funtsezko bazkideak?

BMW enpresa eta Volkswagen enpresa izango dira gure funtsezko bazkideak haiek erakutsiko digute nola diren auto elektriko kargadoreak, eta nola eta non kokatuko diren adostuko dugu. Hauekin batera, Iberdrolak hornituko digu kotxeak kargatzeko beharrezkoa dugun elektrizitate guztia.

2. Zein dira gure hornitzaile nagusiak?

Gure hornitzaile nagusia Iberdrola izango da, berak emango digu autoentzako elektrizitatea, etxebizitzetara iritsi ahal izateko. Gainera, BMW eta Volkswagen auto enpresek kargadoreen kokalekuaren ideiak eta materialak emango dizkigu. Kalitatezko materialak emango dizkigute. Beraz, kargadoreak urte askotan zehar erabili ahalko da.

3. Funtsezko zer baliabide behar dira bazkideak eskuratzeko?

Idea berritzaileak eskuratu behar ditugu, bazkideek diru etekina aterako dutela ikustea lortzeko. Gure ideiak elaboratuak egon behar dira, sinesgarritasuna izan dezaten eta sozioak guregan fidatu daitezten. Konfiantza transmititu behar diegu. Ideiak errealak izan behar dira, ez ametsezkoa.

4. Funtsezko zer jarduera egiten dituzte bazkideek?

Inbertsioak, produktuaren salmenta bideratzeko laguntza, ideien proposamena, jakintza auto elektriko buruz (BMW eta Volkswagen), publizitatea egitea gure aparkalekuei buruz, enpresa eman auto elektrikoak kargatu ahal izateko.